



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/10/29

Batzar Nagusiek ezetz esan deutsie Karrantzan EDAR bat egiteko proiektuari barrero ekiteari

Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko Batzordeak, gaur goizean egindako saioan, ez dau onetsi Podemos taldeak bultzatutako proposamena. Proposamen horretan, “ahalik eta arinen” Karrantzako udalerrian Ur Zikinak garbitzeko Estazinoa (EDAR) eregiteko proiektuari ekiteko eta obrak gauzatzeko eskatzen jakon Bizkaiko Foru Aldundiari.

Bozketan, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek kontrako botoa emon dabe, Talde Mistoa eta Talde Popularra abstenidu egin dira eta proposamena aurkeztu dauen taldeak baiezko botoa emon dau.

Foru Gobernua eusten daben taldeetatik, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeetako batzordekideek 2016an Karrantzako udaleko osokoak adierazitako borondatea eta Aldundiak abeltzaintzako uraren tarifea %25 murrizteko aurkeztutako eskaintzea gogoratuazo ditue.

“Negoziazino eremu horren barruan, barrero proiektuari ekitea eta obrak gauzatzea ez litzatekela errazoizkoa izango ulertzen dogu, Euskadiko tarifa murrizketa handienak ari diralako eskintzen”, adierazo dau Marimar Rodriguez batzordekide sozialistak.

Gorka Beitia ordezkari jeltzaleak, bere aldetik, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartzeko aukerea Karrantzako Udalaren eskuetan dagola adierazo dau, “eta sartzan dan unean, aurrera eroango dan lehenengo azpiegiturea hori izango da”.

“Karrantza Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren barruan egon behar da Foru Aldundia inplikau daiten? Ezetz uste dogu”, erantzun dau Josean Elguezabal Podemos taldeko batzordekideak. “Ganera, uste dogu Aldundiak zor historikoa daukala Karrantzagaz”, gehitu dau Elguezabalek.

Baina EAJ-PNV ez da bat etorri azken horregaz: “Azkenengo 25 urteotan, Foru Aldundiak 26 milioi euro baino gehiago inbertidu ditu Karrantzan, ura hornitzeko azpiegituretan bakarrik”.

Talde Popularreko eta Talde Mistoko ordezkariak, Javier Andrések eta Arturo Aldecoak, abstenidutea erabagi dabe, baina arazo horri konponbidea emotea oso garrantzitsua dala azpimarratu dabe.

PUNTUAK BAZTERTZEA

Batzordean berba gurutzaketa gogorra egon da Joseba Gezuraga EH Bilduko batzordekidearen eta Irene Edesa Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko Batzordeko presidentearen artean, gaur egin dan batzordearen deialdiaren ganean. Azkenean, EH Bilduko batzordekideak bere taldeak aurkeztutako puntuak baztertu egiten dituala jakinarazo deutse bertaratuei, eta saioa itzi egin dau.

NOTA DE PRENSA

29/10/18

Las Juntas Generales rechazan retomar el proyecto y ejecutar las obras de un EDAR en Karrantza

La Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural ha rechazado en una sesión celebrada esta mañana, una propuesta impulsada por el grupo Podemos en la que instaba a la Diputación Foral de Bizkaia a retomar el proyecto y ejecutar las obras de una Estación depuradora de aguas residuales (EDAR) en el municipio de Karrantza, “en el plazo más breve posible”.

La votación ha contado con los votos contrarios de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, la abstención del Grupo Mixto y Grupo Popular, y el “sí” del grupo proponente.

Desde los grupos que sostienen al Gobierno foral, los apoderados del PNV y PSE-EE han recordado la voluntad, expresada por el pleno del municipio de Karrantza en 2016, de consorciarse, así como la oferta de la Diputación de reducir al 25% la tarifa del agua para los ganaderos.

Entendemos que dentro de este ámbito de negociación, el retomar este proyecto y ejecutar las obras no sería razonable porque se están ofreciendo todas las reducciones más bajas de Euskadi”, ha manifestado la apoderada socialista Marimar Rodriguez.

Por su parte, el representante nacionalista Gorka Beitia, ha manifestado que la entrada en el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia está en manos del Ayuntamiento de Karrantza, “y en el momento en el que entre, la primera infraestructura que se acometerá será ésta”.

“¿Tiene que estar Karrantza en el Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia para que la Diputación Foral se implique? Creemos que no”, ha replicado Josean Elguezabal, apoderado de Podemos. “Creemos además que hay una deuda histórica de la Diputación para con Karrantza”, ha añadido Elguezabal.

Una afirmación con la que, sin embargo, no ha coincidido el PNV: “Los últimos 25 años la Diputación Foral ha invertido más de 26 millones en Karrantza solo en infraestructuras de abastecimiento de aguas”.

Los representantes del Grupo Popular y Grupo Mixto, Javier Andrés y Arturo Aldecoa han optado por la abstención haciendo hincapié en la importancia de que se dé una solución a este problema.

RETIRADA DE PUNTOS

La comisión de hoy ha registrado un tenso cruce de palabras entre el apoderado de EH Bildu, Joseba Gezuraga, y la Presidenta de la Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural, Irene Edesa, sobre la convocatoria de la comisión celebrada hoy. El apoderado de EH Bildu ha acabado trasladando a los allí presentes la retirada de los puntos presentados por su grupo, y ha abandonado la sesión.